

II. Inmigrazio Plana

(2008-2011)

Busturialdeko Gizarte
Zerbitzuen Elkargoa

Duela hiru urte, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoaren I. Inmigrazio Plana (2005-2007) onetsi genuenean, gure eskualdera beste lurralde batzuetatik immigranteak etortzea gertakari hasiberrizat genuen. Alde batetik, guretzat gertukoa zen, izan ere, Busturialdeko herritar askok hartu behar izan dute maleta, noizbait. Baina, bestalde, harritu ere harritzen gintuen, zeren eta gure artean ez baita inoiz hainbesteko jatorri, hizkuntza eta ohitura aniztasun egon.

Kultura-aniztasuna, dagoeneko, eguneroko errealitatea da gure herri gehienetan edo, behintzat, herri handienetan. Bestalde, herritar immigranteak eskualdeko gizarte-bizitzari egiten dion eta handituz doan ekarpena ere eguneroko errealitatea da. Bistakoa da lan-sektoreetan duten eragina, esaterako, eraikuntzan, ostalaritzan edo adinekoen zaintzan. Busturialdeko etorkizuna guztion artean antolatzen ari gara, eta, hori dela eta, nahitaezkoa da gure udalerrietan diseinatuko ditugun politiketan beste herrialde batzuetatik -Boliviako Errepublikatik, Errumaniatik, Moldaviako Errepublikatik edo Marokoko Erresumatik, besteak beste-, datozen herritarrak gogoan har ditzagun.

II. Inmigrazio Plan honen (2008-2011) helburuetako bat, oraindik ere, heltzen direnei harrera ona bermatzea da, baina, batik bat, herritar immigranteen parte-hartzea sustatzea udalerrietako gizarte- eta kultura-bizitzan eta, halaber, kultura arteko elkarbizitza hobetzea. Inmigrazioak gizarte-bizitza aldatu du, erabat, eta, aldaketa guztiek bezala, horrek ere errealitate honetara egokitu beharra eskatzen du.

Pedro Sainz-Vizcaya Ortiz de Artiñano
Elkargoburua

AURKIBIDEA

1.-SARRERA	7
2.-MIGRAZIOAREN ERREALITATEA BUSTURIALDEAN	11
3.-ARAU-ESPARRUA	21
4.-KONTZEPTUAK ETA PRINTZIO ARTEZKARIAK	29
5.-HELBURUAK	33
6.-EKINTZAK	35
6.1.-Abegia eta gizartegintza	
6.2.-Enplegua	
6.3.-Hezkuntza	
6.4.-Osasuna	
6.5.-Kurtuartekeo bizikidetza	
7.-METODOLOGIA	45
8.-BALIABIDEAK	47

1.- INTRODUCCIÓN

La Mancomunidad de Servicios Sociales de Busturialdea aprobó su primer Plan de Inmigración en 2005. Entonces esta comarca empezaba a convertirse en el destino de numerosas personas llegadas de otros países como Rumanía, Argentina o Bolivia. Los motivos que han llevado a esta población inmigrante a iniciar una nueva vida en otro lugar son los mismos que a lo largo del siglo pasado empujaron a los habitantes de Busturialdea a partir hacia el continente americano y a otros muchos a emigrar a Gernika-Lumo desde comunidades autónomas como Extremadura o Castilla y León. Las historias se repiten aunque el fenómeno migratorio actual es más complejo por la globalización y por la gran diversidad de orígenes y culturas de todos estos nuevos vecinos y vecinas. A 1 de enero de 2008 en los 17 municipios de la Mancomunidad estaban empadronadas 1.676 personas procedentes de 60 países distintos y con una treintena de lenguas diferentes, el doble que en 2004.

Busturialdea es, por tanto, una tierra de acogida. Un buen número de inmigrantes han elegido esta comarca para labrar en ella su futuro y el de su familia. Aquí han encontrado trabajo en sectores laborales poco demandados por la población local como la hostelería, el cuidado de menores y mayores, la construcción, la agricultura...contribuyendo así al desarrollo de la zona. No es población de paso. Habrá quienes retornen a sus países de origen pero, tal y como ha sucedido en otros pueblos de más tradición migratoria, una mayoría se quedará. Son, por tanto, ciudadanos y ciudadanas con los mismos deberes que el resto y, en principio, también con los mismos derechos aunque la realidad es que una parte de ellos quedan limitados por la normativa de extranjería.

Su aportación es importante para el presente y el futuro de Busturialdea y por eso es indispensable tenerles en cuenta en todas las políticas que se diseñen en estos municipios. Si hace tres años era necesario un primer Plan de Inmigración que ayudase a incorporar a todos estos nuevos vecinos y vecinas a la vida de la comarca ahora, con una comunidad inmigrante cada vez más numerosa -en municipios como Gernika la población extranjera supone un 8% del total-, se hace aún más imprescindible disponer de un marco de actuación aprobado por todos los ayuntamientos y consultado con los agentes sociales. Ese es el contexto en el que nace este II. Plan de Inmigración (2008-2011). Sigue siendo importante garantizar una acogida adecuada a las nuevas personas que vayan llegando pero también hay que trabajar para conseguir una convivencia lo más justa y armónica posible entre la poblaciones extranjera y autóctona y entre las diferentes comunidades de inmigrantes.

El Plan nace en un ámbito local y su responsable último es la Mancomunidad de Servicios Sociales de Busturialdea. Por tanto la mayor parte de las acciones que propone son de competencia municipal. Pero

también se contemplan en él medidas en áreas básicas como la sanidad y la educación donde, aunque las entidades locales carecen de atribuciones, también pueden actuar coordinándose con las instituciones responsables y complementándolas.

El Plan propone una treintena de medidas. Algunas de ellas, más centradas en lo que es la acogida, persiguen que todos estos nuevos vecinos y vecinas procedentes de realidades sociales y culturales diferentes y, normalmente, de contextos económicos más deprimidos, accedan en igualdad de condiciones a los servicios sanitarios, educativos, sociales, culturales y de empleo existentes para toda la ciudadanía. Eso supone que reciban una información y una orientación adecuadas y personalizadas sobre los recursos de la comarca y también sobre aquellos aspectos legales que les afectan exclusivamente por su condición de extranjeros.

Problemas como la precariedad laboral o la carestía de la vivienda son comunes a toda la ciudadanía. Pero se agudizan en el caso de la población inmigrante que cuenta con menos redes de apoyo, sufre el desarraigo y se ve obligada a contar con un permiso de residencia y trabajo a menudo difícil de obtener. Lo que se propone no es crear servicios diferenciados sino garantizar el acceso a los que ya existen. Los únicos dispositivos especializados que se prevén son el propio Servicio de Inmigración y aquellos relacionados con el apoyo escolar y el aprendizaje de los idiomas oficiales.

La contribución de la población inmigrante al desarrollo de la comarca es evidente. Su presencia es notoria en los tajos, en el servicio doméstico y en los bares y restaurantes. Pero estamos hablando de personas, no sólo de mano de obra y por eso es importante valorar todo aquello que desde su diferencia puedan aportar a esta comunidad. Por eso el resto de las medidas del Plan van dirigidas a promover la presencia y participación de la población inmigrante en la vida social y cultural de los municipios y a favorecer el conocimiento y el respeto mutuo entre ésta y la población autóctona. La inmigración ha cambiado nuestra sociedad y eso exige capacidad de adaptación no sólo por parte de estos nuevos vecinos y vecinas sino también por parte de la ciudadanía local. Aquí se enmarcan las acciones de sensibilización en los centros educativos, de colaboración con asociaciones y casas de cultura o de fomento del asociacionismo.

Para diseñar las acciones previstas en este Plan la Mancomunidad ha entrevistado a los representantes municipales de los 17 ayuntamientos que la componen (Arraztu, Busturia, Ea, Elantxobe, Errigoiti, Forua, Gautegiz de Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz y Sukarrieta) a una treintena de agentes sociales y a 16 inmigrantes residentes en la comarca. Con todas las propuestas elaboró un borrador que remitió a las personas entrevistadas. El documento definitivo del Plan fue aprobado por unanimidad en la Junta General de la Mancomunidad del 16 de octubre de 2008. A partir de las líneas maestras trazadas en el Plan la Mancomunidad establecerá cada año un programa de actuaciones y lo dotará presupuestariamente.

Hace tres años hablabamos de la inmigración como de un fenómeno incipiente que ahora ya se ha convertido en una realidad consolidada. En muy poco tiempo el paisaje humano de la comarca ha variado notablemente. Este Plan intenta dar una respuesta a este cambio social tan profundo. Con él queremos ir construyendo, poco a poco, esa Busturialdea del futuro que será, sin duda, mucho más multicultural.

2.-MIGRAZIOAREN ERREALITATEA BUSTURIALDEAN

Immigrazio Plana egin baino lehen, hura garatu behar deneko eskualdeak migrazioaren aldetik duen errealitatea ezagutu behar da. Bi iturri erabili dira horretarako:

- Busturialdean erroldaturiko atzerritarrei eta eskualdeko ikastetxeetan matrikulaturiko ikasle atzerritarrei buruzko urteko txostenak, Elkargoko Immigrazio Zerbitzuak eginak.
 - EDE Fundazioak 2008ko martxoan eta apirilean eginiko landa-lana. 30 gizarte eragileri (alderdietako, sindikatuetakoa, elkarteetako, ikastetxeetako, gizarte zerbitzuetako, lan zerbitzuetako, osasun zerbitzuetako ordezkariak, etab.) eta eskualdean bizi diren 16 etorkini eginiko elkarrizketen bidez, Busturialdeko migrazioari eta kulturen arteko elkarbizitzari buruzko hainbat balorazio bildu dira, baita jarduteko proposamenak ere. Azterlan horren osagarri moduan, immigrazio teknikariak Gizarte Zerbitzuen Elkargoa osatzen duten 17 udalerrietako alkateei eta zinegotziei eginiko elkarrizketak daude.
- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoa osatzen duten hamazazpi udalerrietan (Arratzu, Busturia, Ea, Elantxobe, Errigoiti, Forua, Gautebiz-Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta) beste 60 herrialdetako 1.676 pertsona erroldatuta daude, biztanle guztien %5,9 alegia.
 - Inmigrazio berriaren aurrean gaude. Etorकिन %68a azkeneko hiru urtetan (2005tik 2008ra) heldu da. Herena 2007. urtean erroldatu zen.
 - 1996. urtetik 2008. urteko ekaina arte Elkargoan erroldatutako atzerritar kopurua hamar bider handitu da, 164 lagun izatetik 1.676 izatera igaro dela.
 - Atzerritarrek Elkargoko udalerrietan duten lurralde-banaketa ez da homogenea, eta Gernika-Lumon kopuru handia biltzen da (%76). Etorकिन kolektibo honen %90a 17 udalerrietako seitan erroldatuta dago: Gernika-Lumo, Mundaka, Forua, Gautebiz-Arteaga, Busturia eta Muxika.
 - Atzerriko biztanleen %48,3 Europako Batasunetik kanpoko herrialdetik etorri da (820 pertson). Europako Batasunetik

etorri direnen %84 errumaniarrak dira. Gehien bat ageri diren nazionalitateak honakoak dira: errumaniarra (719 pertsona), boliviarra (99), argentinatarra (94), ekuadortarra (82) ta brasildarra (60).

- **Emakumeak** eskualdeko etorkin guztien %48 dira.
- Eskualdean itzulerako emigrazioak ere garrantzi handia du, horrela, atzerriko biztanle guztien %5 da eta ezaugarri hauek ditu: a) Estatu Batuetako, Australiako edo Latinoamerikako herrialdeetako (Mexiko edo Venezuela) nazionalitatea izatea; b) adinez aurrera doan biztanleria izatea; c) gehien bat Euskal Autonomia Erkidegoan, Bizkaian bereziki, jaiok izatea.
- Busturialdea izugarri zahartuta dagoen eskualdea da eta, horregatik, etorkinen etorrera gaztetasun-injekzioa da. Atzerriko biztanleen erdia 18-39 urte bitartekoa da eta %16 adin txikikoa.
- **Gernika-Lumoko udalerrian** Elkargoan dauden atzerritarren %76 biltzen dira (1.276 lagun erroldatuta). Biztanleen %7,8 beste herrialde batzuetatik dator, bereziki Errumaniatik (642 pertson), Bolibiatik (74) ta Ekuadortik (69).
- **Mundakan** atzerriko nazionalitatea duten 99 lagun daude, hori biztanle guztien %5,2 da. Presentzia handien duten nazionalitateak honakoak dira: errumaniarra (26 pertson), argentinatarra (15) ta bolibiarra (15).
- **Foruan** beste herrialde batzuetako herritarrak guztien %5,4 dira (54 lagun), eta Errumania (12 pertson), Ekuador (10) ta Marokoko (8) kolektiboak nagusitzen dira.
- **Gautegiz-Arteagako** udalerrian atzerriko nazionalitatea duten 40 pertsona erroldatuta daude, biztanle guztien %4,4 alegia. Presentzia handiena duten kolektiboak Errumania (17 pertson) eta Estatu Batuak (5).
- **Busturian** atzerriko nazionalitatea duten 53 pertsona bizi dira, biztanleria osoari dagokionez %3 izanik. Etorkin gehienak Portugal (13 pertson), Errumania (8) ta Argentinatik (6) etorri dira.

Atzerriko Biztanleriaren eboluzioa, 2005-2008.

	2005		2006		2007		2008	
	BIZ. ATZERRIT	% OROK	BIZ. ATZERRIT	% OROK	BIZ. ATZERRIT	% OROK	BIZ. ATZERRIT	% OROK
ARRATZU	2	0,5	5	1,4	6	1,6	10	2,7
BUSTURIA	28	1,6	38	2,1	44	2,5	53	3
EA			17	1,9	18	2	19	2
ELANTXOBE	6	1,3	5	1,1	7	1,5	9	2
ERRIGOITI	9	1,7	10	1,9	10	1,9	16	3
FORUA	35	3,5	48	4,9	46	4,8	54	5,4
ARTEAGA	37	4,2	67	7,4	42	4,6	40	4,4
GERNIKA	802	4,9	977	6,8	1.100	6,8	1.276	7,8
IBARRANGELU	10	1,7	11	1,8	12	2	18	2,9
KORTEZUBI	7	1,7	9	2,2	9	2,2	9	2,1
MENDATA	7	1,9	8	2,1	6	1,6	9	2,4
MORGA	8	2	8	2	7	1,7	11	2,7
MUNDAKA	63	3	74	3,9	75	4	99	5,2
MURUETA	9	3	9	2,9	11	3,6	11	3,5
MUXIKA	19	1,4	16	1,1	17	1,2	29	1,9
NABARNIZ							2	0,8
SUKARRIETA	7	1,9	5	1,4	8	2,2	11	3,1
GUZTIRA	1.049	3,9	1.307	4,7	1.418	5,1	1.676	5,9

* Ea 2006an sartu zen Elkargora ta Nabarniz 2007.

HEZKUNTZAKO DATUAK

- Adin txikiko atzerritarren eskolako matrikulazioaren datuak eta erroldakoak ia bat datoz, beraz, eskolatze osoa dagoela esan dezakegu. Horri gehitu behar diogu ikasleen eskoletarako asistentzia ere egokia dela, hau gainerako adin txikikoen maila berean dagoela.
- 2007-2008 ikasturtean atzerriko ikasleen matrikulazioak hazi direla ikusi da, eta 2006-2007 ikasturtean 223 izatetik 245 izatera igaro dira.
- Matrikulatu kopuruan egon den hazkunde hau hezkuntzako prestakuntzaren tarte guztietan gertatzen da. Datu hauen bidez berretsita gelditzen da atzerriko nazionalitatea duten gurasoak dituzten neska eta mutilen jaiotzaren hazkundeko prozesua egoteaz gain, familia berriro elkartzeko prozesua ere gertatzen ari delako hipotesia, eta bigarren hau garrantzi handiagoa hartzen ari da prozesu honetan.
- Goranzko joera hau atzerriko ikasleek guztien gainean duten garrantzi beran ere ikus daiteke, horrela, hau 2006-2007

ikasturteko %6,1tik 2007-2008ko matrikulazio osoaren %6,6ra igaro da.

- Atzerriko nazionalitatea duten adin txikikoak Busturialdeko Elkargoko ikastetxe guztietan daude. Gurasoek bere seme-alabak sare publikoan egin beharrean ikastetxe pribatuetan matrikulatzeko lehentasuna mantendu da. 2007-2008 ikasturtean %64,4ak irakaskuntza pribatua hautatu du.
- Atzerriko ikasleak Gernika-Lumoko Santa María del Socorro HLBHIP (La Merced) ikastetxe pribatuan pilatzen ari direla, bertan eskola-adinean dauden Busturialde osoko etorkinen %43ak ikasten du. Ikastetxean dauden 303 ikasleetatik 106 (%34,9) beste herrialde batzuetatik datoz, bereziki Errumaniatik.
- Ikasle etorkinak ikastetxe bakar batean (La Merced) pilatu badira hainbat faktoreren batuketaren ondorioz izan da: finkatzeko sareak, hauek neska eta mutilak lehenago iritsi diren pertsonak egin duten lekuetan matrikulatzera eramaten dutela; hizkuntz eredu elebiduna (Busturialdean B eredu duen ikastetxe bakarra da); ikastetxearen ideia katolikoak, etorkin batzuek ezaugarri hau izugarri baloratzen dutelako.
- 2007-2008 ikasturtean zehar 27 nazionalitateko ikasle atzerritarrak daude. Gehienek errumaniar (%37), argentinatar (%11,8) ta bolibiar (%8)) jatorria dute.
- 2007-2008 ikasturtean egon den matrikulazioari dagokionez, heziketa zikloetan ikasle atzerritarren honako banaketa hau dagoela ikusi dugu: ama hezkuntza eta haur hezkuntza (%25,7), lehen hezkuntza (%42,8), DBH (%28,5) eta Batxilergoa (%1,6).

ETORKINEN BEHARRAK

II. Immigrazio Plana burutzeko eginiko elkarrizketen bidez lortu dira datuak.

- Elkarrizketaturiko pertsonak eta eragileak, oro har, balorazio positiboa egiten dute etorkinak eskualdera iritsi izanaren inguruan, aberasgarria delako kulturaren aldetik eta aniztasuna dakarrelako. Baina, gizarte aldaketa horrek etorkinak hartzen dituen gizartearen ohiturak eta bizimoduak aldarazi ez baditu ere, kultur aniztasunak txokea ekarri du, bai bertako herritarrentzat, bai etorkinentzat.

- Elkarrizketaturiko pertsonak eta eragileak uste dute Busturialdeko biztanleak, oro har, ez direla ez arrazistak ez **xenofoboak**, baina etorkinekiko errezeloa erakusten dutela ohartarazten dute.
- Etorkinak eta elkarrizketaturiko gizarte eragileak oro har bat datoz esatean etorkinek **oinarrizko beharrak edo bizirik irauteko beharrak** dituztela, gehienbat lanarekin eta etxebizitzarekin lotutakoak.
- Nahiz eta zenbait kasutan gainerako biztanleen antzeko beharrak dituzten, gizarte eragile gehienak bat datoz esatean etorkinen kasuan handiagoak direla **etxebizitza eskuratzeko zailtasunak eta behin-behinekotasun handiagoa** dutela lanaren eta soldataren aldetik.
- Etorkinek adierazi dute ere eurek duten behar nagusietako bat **administrazio egoera erregularizatzea** dela laneko baimenekin eta egoitza baimenekin, horri esker kontratuaz eginiko lanpostuetan aritu ahal izateko. Nahiz eta gizarte eragileek erregularizazioa etorkinen hasierako funtsezko behar gisa aipatu ez duten, elkarrizketetan esan izan dute Busturialdeko etorkin asko egoera irregularrean daudela.
- Gizarte eragileek onartu egiten dute **etorkinek zailtasun handiagoak dituztela etxebizitza bat alokatzerako orduan**, gizartean dauden estereotipoengatik eta Busturialdeko herritarren familia-sarerik ezagatik.
- Etorkinei eginiko elkarrizketetan nabarmentzen denez, **arazo handia da etxebizitza eskuratzeko**, eta batzuetan etxebizitza eskasak izatea dakar egoera horrek. Gainera, betetzeko zailak diren hainbat baldintza eskatzen zaizkie sarritan, batere egoera irregularrean dauden etorkinen kasuan: lan-kontratuak, nominak, txostenak, bermeak, banku-abalak, etab.
- Lana da etorkin guztien oinarrizko beste beharretako bat, etorkinek eurek zein gizarte eragileek adierazia. Elkarrizketaturiko etorkinentzat, eta jatorrizko herrialdea uzteko arrazoiekin guztiz bat etorrita, **funtsezkoa da lanpostu bat aurkitzea, baina batzuetan ez zaie erraza izan etorkinak izateagatik**. Egoera irregularrean dauden zenbait pertsonak diote jendeak ez diela lanik eman nahi, horregatik isunen bat jasotzeko arriskurik hartu nahi ez dutelako. Beste batzuek, aldiz, oso denbora laburrean lortzen dute lana (zenbaitek dio 15 egunen buruan aurkitu duela lana). **Hizkuntza ez jakitea ere beste eragozpen bat da lana aurkitzerako orduan**.

- Elkarrizketaturiko gizarte eragileek oro har uste dute etorkinek **behin-behinekotasun handieneko arloak** betetzen dituztela, eta orokorrean **lan egoerarik okerrera dute merkatuaren barruan**. Elkarrizketaturiko gehienek nabarmentzen dute etorkinen lanaren behin-behinekotasuna edo prekaritatea (kontratu barik, lanaldi luzeak eta soldata txikiak, etab.). Gainera, etorkin askok bizi duen laneko esplotazioa aipatzen da, baita herrialdetik botatzeko beldur direla-eta egoera ez salatzea ere.
- Gizarte eragileek etorkinen **lan eta soldaten baldintzak hobetu** beharra ohartarazten dute, baita prekaritate handikoak ez diren lanak eskuratzea erraztu beharra ere.
- Enpleguaz eta etxebizitzaz gain, elkarrizketaturiko eragileek hizkuntza ofizialak ondo jakitea ere aipatzen dute oinarrizko behar gisa etorkinak harrerako gizartean integratu ahal izateko. Hainbat gizarte eragilek ohartarazten dute **zenbait etorkinek zailtasunak dituztela komunikatzeko, hizkuntza dela-eta** (medikuarekin duten hitzorduan, baimenen tramitazioan, sindikatuan, etab.). Horregatik, inoiz aipatu izan da **itzultzaileak** baliabideen artean ezarri beharra.
- Adingabeen artean, **euskara sakondu beharra** nabarmentzen da, gehienbat **gaztetxoenen artean**.
- Gizarte eragileek hainbat gairen inguruko **informazioa eman beharra** ohartarazten dute: gizarte laguntzak, baliabideak, udalerrri bakoitzean egiten diren jarduerak, laneko eskubideak, osasunerako hezkuntzako gaiak hala nola antisorgailuen erabilera...
- Zenbait gizarte eragilek etorkinentzako **lanbide heziketaren** beharra ere aipatu dute lana eskuratzeko bidea den aldetik.
- Nahiz eta etorkinen beharrekin hain lotuta ez egon zentzurik hertsienean, eskualdearen barruan gizarteratze-prozesuak hobetzeari buruzko beste alderdi batzuk ere aipatu dira: bertako herritarren eta etorkinen arteko integrazioa errazteko **guztientzako guneak** sortzea; **bertakoak jabeaztea** migrazioari buruzko gaiez eta horiekin hainbat kulturaren ezagutza lantzea; eskualdean dauden kultura desberdinak **ikusaraztea**; **harrerako gizartearen ezagutza** lantzea etorkinekin.
- Orain dela denbora gehiago etorritako etorkinek adierazi dute nolabaiteko **aldaketa gertatu dela hasierako eta egungo beharren artean**. Denboraren poderioz, lan kualifikatuagoak

eta soldata hobekoak bilatzen hasten dira eta etxebizitza eskuratzeaz pentsatzen hasten dira, baina askotan, etxebizitzaren prezio altuak direla-eta, ia eragozpen gaindiezina izaten dute.

- Hasierako beharrak, duda barik, etxebizitzaren eta enpleguaren ingurukoak dira, eta ondoren hizkuntza eta lanbide heziketa. Bigarren tokian, etorkinek egonkortasuna izatea lortzen dutenean, parte-hatzean pentsatzen hasten dira, baina behar hori gizarte eragileek soilik aipatu dute eta ez etorkinek.

KULTURAK ELKARREKIN BIZITZEARI BURUZKO BALORAZIOAK

- **Busturialdean dauden moduko udalerrri txikietan gizarteratzeko prozesua hirietan baino motelagoa dela diote etorkinek, herri txikiotan etorkin gutxiago dagoelako eta ez daudelako hain ohituta aniztasunera.**
- **Gizarteratzea erraztu dezaketen faktoreen artean, hauexek aipatzen dira: lana izatea, kirol elkarteetan eta jardueretan parte hartzea eta hizkuntza jakitea (gehienbat gaztelania eta batzuetan euskara, baina garrantzi gutxiago ematen diote elkarrizketatuek euskarari eta oso hizkuntza zaila iruditzen zaiela nabarmendu dute).**
- **Elkarrizketaturiko ia etorkin guztiek uste dute eskualdean integratu direla, baina kasuren batean erlijio desberdintasuna eta hizkuntza ez jakitea aipatu dituzte gizarteratze horretarako eragozpen gisa.**
- **Elkarrizketaturikoen erdiak dio inoiz diskriminatua izan dela etorkina izateagatik, adibidez lana bilatzerako orduan edo etxebizitza bat alokatzerakoan, baina ñabardura bat egiten dute: hori ez zaiela Busturialdean gertatu, lehenago bizi izan diren beste toki batzuetan baino. Diskriminatuta sentitu direla aitortu dutenen artean, hainbat naziotako etorkinak daude baina batez ere Errumaniakoak dira, eta Errumaniako ijitoek duten fama txarragatik dela uste dute, ez bakarrik Busturialdean, Europa osoan baizik, eta erkidego osoan ere halaxe gertatzen da.**
- **Oro har, balorazio positiboa egiten da Busturialdeko biztanleen eta etorkinen arteko erlazioaz, baina gero eta erlazio endogamiko handiagoetarako joera ikusten da zenbait komunitatetan hala nola Amerika Latinoko eta Errumaniako etorkinen artean.**

- Elkarrizketaturiko pertsonak bereziki aipatzen dituzte bertako biztanleen artean entzuten dituzten komentarioak, hots, etorkinek bertakoek baino laguntza publiko gehiago jasotzen dituztela erakundeen aldetik. Haien ustez, herritarren komentario horiek gizarte baliabideak ezagutzen ez dituztelako eta informazio zehatza ez dutelako gertatzen dira. Deigarriak dira ere emakume marokoar batek eta gizon saharar batek emandako lekukotza. Haien arabera, **jantzi desberdinak eramateak** zaildu egin dezake bertako herritarrekin bizitzea.
- Elkarrizketetan beste arazo bat ere islatzen da: **ia ez dagoela erlaziorik hainbat herrialdeetako etorkinen artean, eta egotekotan ere, oso azalekoa dela.**
- Elkarrizketaturiko pertsonak, oro har, eskualdean pozik daudela adierazi dute, eta era berean, Busturialdean bizi diren erkide asko ere pozik daudela diote.
- Gizarte eragilerik gehienak bat datoz esatean **oraindik ez garela benetako elkarbizitzara eta integrazioa iritsi.** Horrek ez du esan nahi gatazkarik dagoenik harrerako gizartearen eta etorkinen artean, baina bai harremanak oraindik ez direla normalizatu.
- Oro har uste da **etorkinak naziotasunaren arabera taldeetan biltzen direla,** halako moldez non bertakoekin bakarrik ez beste erkide batzuekin ere izaten baitira harremanetan. **Ikastetxeetan** ere halaxe gertatzen dela ikusten da, batez ere nerabeen arteko harremanetan.
- Elkarrizketarik gehienetan nabarmendu denez, elkarbizitza lortzeko **bertakoen eta etorkinen baterako inplikazioa behar da;** hala, herritar guztiek egokitu beharko dute, gizartean bizi diren **kulturak errespetatuz eta onartuz.**
- Oro har esan da **denbora faktore gakoetako bat dela** gizarteratzearen eta elkarbizitzaren prozesuan eta emaitzak denbora igarota ikusiko direla. Hori dela-eta, epe luzerako plangintza bat beharrezkoa dela irizten zaio.

3.-ARAU-ESPARRUA

Busturialdeko Inmigratio Plana ez da ekimen isolatua. Bere printzipio eta helburuak Inmigratioari buruzko II. Euskal Planaren barruan jasota dauden berberak dira, gobernu autonomikoak berau 2007. urteko ekainaren 12an onetsi zuen, eta, gainera, nazioarte, estatu eta autonomiako arau ugariren mende ere badago. Baina, hala eta guztiz ere, udalerriek eta elkargoek maniobratzeko margen handia dute, tokiko eremua hiritarrendandik gertuen dagoena eta bere gizarteratzean gehien eragiten duena baita.

1. Nazioarteko legeria.
 - Nazio Batuen araudia.
 - Europar Batasunaren araudia.
 - Aldebiko nazioarteko itunak.
2. Estatu legeria.
3. Autonomiako legeria.

3.1. NAZIOARTEKO LEGERIA

3.1.1 Nazio Batuen araudia. Bere oinarri nagusia 1948. urteko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala da, baina nazioarteko erakunde honen bestelako adierazpen eta itunek ere garrantzi handia dute etorkinen eskubideen esparruan:

- Arraza Diskriminazioko forma guztiak Ezabatzearen gaineko Deklarazioa (1963).
- Lurralde Asiloaren gaineko Deklarazioa (1967).
- Erljioan edo Usteetan oinarritutako Intolerantzia eta Diskriminazioko era guztiak Ezabatzearen gaineko Deklarazioa (1981).
- Bizi diren Herriko Nazionalak ez diren Banakoen Giza Eskubideen gaineko Deklarazioa (1985).
- Nazio edo Etnia, Erljio eta Hizkuntzako Gutxiengoetako Kide diren Pertsonen Eskubideen gaineko Deklarazioa (1992).
- Arrakeriari, arraza-diskriminazioari, xenofobiari eta intolerantziako modu lotuei buruzko Mundu Konferentziako Durbango Adierazpena (2001).

Halaber, Espainiar Estatuak Nazio Batuek egin dituzten giza eskubideei buruzko hitzarmen gehienak berretsi ditu, baina ez du hala egin zinez garrantzitsua den batekin, Langile Migratzaileak eta bere Senideak Babesteko Hitzarmena (1990) alegia, 2003. urteko uztailaren 1etik indarrean dagoena.

Izenpetu diren itunen artean, honakoak nabarmentzen dira:

- Errefuxiatuen estatuaren gaineko hitzarmena (1951) eta bere Protokolo Gehigarria (1967).
- Aberrigabeen Estatutuari buruzko hitzarmena (1954).

- Aberrigabeziako kasuak murrizteko hitzarmena (1961).
- Arrazagatiko Diskriminazioa Ezabatzeko Hitzarmena (1965).

3.1.2 Europar Batasunaren araudia. Espainiar Estatua, Europako Batasuneko kidea den aldetik, erakunde horrek kontu migratzaileei dagokienez garatutako legeriaren mendean dago. 1997. urtean Amsterdamgo Ituna sinatu zutenetik, kide diren estatuak asilo, inmigrazio eta mugen kontroleko alorretan lotzen dituen erkidegoko araudia hartzea juridikoki egin daiteke. Horren bidez Europar Batasuneko Itunean *Bisatu, asilo, inmigrazio eta pertsonen joan-etorri askearekin lotutako bestelako politikoei* buruzko IV. Titulua gaineratu zuten. Baina 1999. urteko urriko Tampereko gailurraz gerotik bereziki, inmigrazio eta asiloari buruzko Erkidegoko politikaren oinarritzko ildoak ezarri ziren: jatorri eta igarotzeko herrialdeekin elkarlanean aritzea; asilo komuneko Europako sistema sortzea; hirugarren herrialdeetako nazionalen bidezko tratua ematea eta migrazio-fluxuen kudeaketa.

Europar Batasunak asiloari buruzko politika bateratuak inmigrazioari buruzkoak baino gehiago garatu ditu, eta, azken hauen barruan, fluxuen kontrolari bultzada handiagoa eman zaio etorkinen jatorrizko herrialdeekin izan beharreko elkarlanari edo bere gizarteratzeari baino. Beraz, esparru honetan erkidegoko araudiaren aurrerapen handiagoak gertatu ezean, hirugarren herrialdeetako nazionalak sartzeko eta geratzeko baldintzak araupetzea, oraindik ere, neurri handi batean kide diren Estaturen berezko eskumenak dira, eta gauza bera gertatzen da lan-baimenak emateko prozedurei dagokienez.

Migrazioaren esparruko erkidegoko araudiaren barruan honakoak nabarmentzen dira:

- Giza Eskubideak eta Funtsezko Askatasunak Babesteko Europar Hitzarmena (1950).
- Langile Migratzaileen Legezko Estatuari buruzko Europar Hitzarmena (1977).
- Europako Gutun Soziala (1961) eta haren protokolo gehigarria (1988).
- Torturari eta bestelako tratu krudel, anker edo iraingarriei Aurrea hartzeko hitzarmena (1987).
- Gutxiengo Nazionalak Babesteko Esparru Hitzarmena (1995).
- Dublingo Hitzarmena (1990) eta aplikazioak.
- Schengengo Akordioak (1985) eta aplikazioak (1990).
- Amsterdamgo Ituna (1997).
- Tampereko Kontseilua (1999).
- Kontseiluaren 2000/43 Zuzentaraua, pertsonen, arraza eta etniako jatorria alde batera utzita, tratu berdintasuneko printzipioa aplikatzeari buruzkoa.
- 2000/78 zuzentaraua, enpleguan eta okupazioan tratu-berdintasunerako esparru orokorra ezartzeari buruzkoa.

3.1.3 Aldebiko itunak. Espainiar Estatuak aldebiko itunak izenpetu ditu etorkinen jatorriko herrialde nagusiekin, eta horietan sasoiko langileen kontratazioa bezalako kontuak araupetuta daude.

- Espainia eta Kolonbiaren arteko 2001. urteko maiatzaren 21eko akordioa, laneko fluxu migratzaileen araupetze eta ordenamenduari buruzkoa.
- Espainiako Erresumaren eta Ekuadorko Errepublikaren arteko 2001. urteko maiatzaren 29ko akordioa, fluxu migratzaileen araupetze eta ordenamenduari buruzkoa.
- Espainiako Erresumaren eta Marokoko Erresumaren arteko 2001. urteko uztailaren 25eko akordioa.
- Espainiako Erresumaren eta Dominikar Errepublikaren arteko 2001. urteko abenduaren 17ko akordioa, laneko fluxu migratzaileen araupetze eta ordenamenduari buruzkoa.
- Espainiako Erresumaren eta Errumaniaren arteko akordioa, bi Estatu hauen arteko laneko fluxu migratzaileen araupetze eta ordenamenduari buruzkoa, Madrilan 2002. urteko urtarrilaren 23an izenpetutakoa.
- Espainiako Erresumaren eta Poloniako Errepublikaren arteko 2002. urteko maiatzaren 21eko akordioa, bi estatuen arteko fluxu migratzaileen araupetze eta ordenamenduari buruzkoa.
- Espainiako Erresumaren eta Bulgariako Errepublikaren arteko 2003. urteko urriaren 28ko akordioa, bi estatuen arteko laneko fluxu migratzaileen araupetze eta ordenamenduari buruzkoa.
- Espainiako Erresumaren eta Kabo Berdeko Errepublikaren arteko 2007. urteko martxoaren 20ko akordioa, bi estatuen arteko laneko fluxu migratzaileen araupetze eta ordenamenduari buruzkoa.

3.2. ESTATUKO LEGERIA

- Espainiako Konstituzioa (1978). 149.1.2^a artikuluan xedatzen du nazionalitatea, atzerritartasuna, emigrazioa eta asilo-eskubidea Estatuaren berezko eskumenak direla, hortaz, honi dagokio arlo hauei buruzko legeak egitea. Hala ere, bere 148. artikuluan, etxebizitza, kultura, gizarte-laguntza, hezkuntza eta osasuneko eskumenak Autonomia Erkidegoei uzten dizkie, hauek oinarrizkoak izanik herritar guztien integrazioarako.
- Kode Zibila. Espainiar naziotasuna eskuratzeko baldintzak araupetzen ditu, besteak beste.
- Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta bere ondorengo aldaketak. Erroldatzeak, besteak beste, araupetzen ditu eta tokiko erakundeen eskumen esparrua ezartzen du.
- Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Espainiako atzerritarren Eskubide eta Askatasunei eta bere Gizarteratzeari buruzkoa, bitan aldatu dute: azkenekoa azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoa eginda, eta aurrenekoa, indarrean sartu baino hamabi hilabete lehenago, abenduaren 22ko 8/2000 Legeak egindakoa. Atzerritarrei buruzko Estatuko lehendabiziko araudia uztailaren 1eko 7/1985 Lege Organikoa izan zen. Atzerritarrei buruzko espainiar zuzenbidea egon

den azkeneko 20 urte hauetan, gainera, araupetzeko aparteko sei prozesu gertatu dira (1986, 1991, 1996, 2000, 2001 ta 2005).

- Abenduaren 30eko 2393/2004 Errege Dekretua, Espainiako atzerritarren Eskubide eta Askatasunei eta bere Gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren araudia onesten duena. Ekainaren 20ko 864/2001 Errege Dekretua aldatzen du.
- Otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretua, Europar Batasuneko kide diren Estatuetakoa eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioan parte hartzen duten bestelako Estatuetakoa nazionalak Espainian sartu eta egoteari buruzkoa.

3.3. AUTONOMIA ESPARRUA

Euskal Autonomia Erkidegoak, bere Autonomia Estatuaren 9.2 artikuluan arabera, bere eskumenen artean, "hiritarrek bere oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia bermatzea"; "bizi eta laneko baldintzen hobekuntza sustatzea"; "enpleguaren gehikuntza eta egonkortasun ekonomikoa sustatzea" eta "banakoaren eta bere taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izateko baldintzak sustatzea" ditu.

Halaber, Estatuak berak bere 7.1 artikuluan adierazten duen bezalaxe, bere eginkizunetako bat "bere herritar guztiek Euskadiko bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturean eta sozialean parte hartzen dutela erraztea" da. Horregatik guztiagatik, atzerritarrei buruzko kontuetan legeak egiten dituen eta administratzen duena Estatuak izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoak, hezkuntza, osasun, etxebizitzan eta gizarte-ongizatean dituen eskumenak direla kausa, zeregin garrantzitsua du etorkinak gizarteratzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzak 2007ko ekainaren 12an onetsi zuen 2006-2009ko II. Inmigratio Planak esplizituki adierazten du. "gaiari (inmigratioari) buruzko funtsezko legegintza Legebiltzar Zentralaren esku geratzen bada ere, Eusko Legebiltzarrari dagokio sektoreen arabera gai guztiak arautzea. Arau horien bitartez, funtsezko legegintzan aurreikusten diren eskubideak baino eskubide gehiago edukitzeko ahalmena ematen dio atzerritarri". Eta jarraitzen du: "Autonomia Erkidegoek gero eta eskumen gehiago hartuko dituzte migrazio-fluxuen kudeaketaren arloan, Katalunian gertatu den bezala, eta, beraz, Inmigratioari buruzko II. Euskal Plan honek behar diren jarduerak bildu behar ditu errealitate instituzional berri horretara egokitze".

Euskal Autonomia Erkidegoak bere egitura errealitate berri honetara egokitu zuen eta 2001. urtean Inmigratio Zuzendaritza Berezia sortu zuen, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Sailera atxikita. Zuzendaritza honek, bere eginkizunen artean, eta otsailaren 12ko 40/2002 Dekretuaren arabera, inmigratio arloan Estatuarekin eta bestelako Administrazio Publikoekin koordinatzeko mekanismoak eta tresnak proposatzea jasota dago.

Lehendabiziko neurrietako bat ekainaren 25eko 155/2002 Dekretua izan zen. Honek erakunde publikoei eta pribatuei inmigratio langile teknikoak

kontratatzeko, gastu materialetarako eta udal abegi-sarea sortzeko helburua duten Inmigrazioari buruzko Tokiko Planak egin edota aplikatzeko eman beharreko laguntzak araupetzen ditu. Aipatutako laguntza horien kontsolidazioa 200/2003 dekretuan jasota zegoen ta gero apirilaren 17ko 61/2007 inmigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak burutzeko laguntzak arautzen dituen dekretuan.

Halaber, abuztuaren 30eko 200/2002 Dekretuak Etorquinek Euskal Herrian Gizarteratzeko eta Gizartean Parte Hartzeko Foroa sortu zuen. Foro honek GKE, sindikatu, enpresari eta administrazio publikoen arteko hausnarketa eta koordinaziorako gunea izan nahi du.

Ondoren, Inmigrazioaren Euskal Behatokia sortu zen Euskal Herriko Unibertsitateko I. eta II. Soziologia Sailarekin elkarlanean; Heldu programa, etorkinei laguntza juridiko eta soziala emateko eta Kultur arteko Bitartekaritza eta Hezkuntzako Erkidegoko Ekimenak Koordinatzeko Biltzen zentroa. Halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Kultura Artekotasunerako Ikasle Etorri Berrien Inklusiorako programa ere prestatu du.

Honakoak dira etorkinen gizarteratzean eragin handien duten arau autonomikoetako batzuk, halere, herritarrak diren aldetik askoz gehiago dira eragiten dieten legeak:

- Autonomia Estatutua, abenduaren 18ko 3/79 Lege Organikoak onetsita.
- Gizarteko Bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa. Azaroaren 10eko 8/00 eta 9/00 aldaketak.
- 2002. urteko otsailaren 15eko 40/2002 dekretua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionalari buruzkoa.
- Ekainaren 25eko 155/2002 Dekretua, inmigrazioaren esparruan jarduerak egiteko laguntzak araupetzen dituena.
- Abuztuaren 30eko 200/2002 Dekretua, Etorquinek Gizarteratzeko eta Gizartean Parte Hartzeko Foroa sortu zuena.
- Irailaren 2ko 200/2003 Dekretua, atzerriko etorkinak hartzeko sarea finkatzeko udal oinarriko tokiko erakundeei laguntzak ematekoa.
- Apirilaren 17ko 61/2007 Dekretua, inmigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak burutzeko laguntzak arautzen dituena.

3.4. TOKIKO ARAUDIA

Udal mailako eremua hiritarrendandik gertuen dagoena da eta, gainera, Toki Araubideari buruzko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak udalerriei "era guztietako jarduerak sustatzeko eta auzo-erkidegoaren premiak eta aspirazioak asetzen laguntzen duten zerbitzu publikoak eskaintzeko" gaitasuna ematen die azken horiek "bere eskumenen baitan" sartzen badira. Hori dela kausa, zinez garrantzitsua da Inmigrazioko Tokiko Planak edukitzea, tokiko erakundeen konpromiso eta helburuen esparrua finkatzen dutenak.

Legeak tokiko erakundeentzat hainbat eskuduntza gordetzen ditu, eta hauetan berebiziko garrantzia du inmigrazioaren arloak, eskumenen artean honako hauek daude:

- Segurtasuna toki publikoetan.
- Hiriko bideetan ibilgailu eta pertsonen zirkulazioa antolatzea.
- Hirigintzako antolamendua, kudeaketa, burutzapena eta diziplina; etxebizitzaren sustapena eta kudeaketa.
- Erabiltzaile eta kontsumitzaileen defentsa.
- Osasungarritasun publikoa babestea.
- Osasunaren oinarrizko arretaren kudeaketan parte hartzea.
- Hilerriak eta hileta-zerbitzuak.
- Gizarte-zerbitzuak eta sustapen eta gizartean birtxertatzekoak ematea.
- Kultur eta kirol jarduerak edo instalazioak; astialdiaren okupazioa; turismoa.
- Irakaskuntzako programazioa parte hartzea eta Hezkuntzako Administrazioarekin elkarlanean aritzea herri ikastetxeak sortu, eraiki eta sostengatzerakoan, horiek kudeatzeko organoetan esku hartzea eta derrigorrezko eskolatzea zaintzerakoan parte hartzea.

Baina, eskumen-esparrua zabal daiteke, Legean bertan jasota dagoen bezalaxe. Bere 25. artikuluan arabera, udalerrriak "bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, era guztietako jarduerak sustatu eta auzo-erkidegoaren premiak eta aspirazioak asetzen laguntzen duten zerbitzu publikoak eskaini ahal ditu".

Halaber, bere 27. artikuluan, Legeak ahalbidetzen du "Estatuko, Autonomia Erkidegoetako Administrazioak eta bestelako toki erakundeek udalerriei bere interesekin lotutako alorreko eskumenak gauza ditzaten eskuordetzea, beti ere horren bidez kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzen bada eta hiritarren partaidetza handiagoa lortzen bada". Eta, azkenik, bere 28. artikuluan "udalerriek beste Administrazio Publikoen berezkoak diren jarduera osagarriak eta, zehazki, hezkuntza, kultura, emakumea sustatu, etxebizitza, osasuna eta ingurumena babesteari buruzkoak, egiteko" aukera jasota dago.

Bestalde, atzeritarrei buruzko araudiak gero eta erantzukizun handiagoak esleitzen dizkie tokiko erakundeei. Familia batzeko prozedurei buruzko 2393/2004 Errege Dekretuko 42.2e artikuluan dakarrenez, eskatzaileak "familia batu nahi duenaren eta familiaren beharrei erantzuna emateko etxebizitza egokia duela egiaztatu behar du agiri egokiaren bidez. Betekizun hori betetzeko, **familia batu nahi duena bizi den udalerriko tokiko udalbatzak emandako txostena aurkeztu behar da**". Hauxe ezarri da Errege Dekretu horren 45.2b artikuluan: "Espainian gutxienez hiru urtez jarraian egon izana egiaztatzen duten atzeritarrei eman dakieke errotzearen ziozko goitza baimena, betiere Espainian eta jatorrizko udalerrian aurrekari penalik

ez badute, langileak eta enpresariak eskabidea egitean sinaturiko lan-kontratua badute eta lan-kontratua gutxienez urtebetekoa bada, bai beste atzerritar egoiliarrekiko familia-loturak egiaztatuta, bai lanean ari dela egiaztatzeko eskatzailearen ohiko egoitzako udalak emandako txostena aurkeztuta”.

Halaber, Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta askatasunari buruzko azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoak aldarazi egin du Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 16. artikulua. Honelaxe gelditu da idatzita: “Udal erroldan izena ematea bi urterik behin berri beharko da egoitza iraunkorra izateko baimenik ez duten eta EBkoak ez diren atzerritarren erroldatzeen kasuan”.

4.-KONTZEPTUAK ETA PRINTZIOPIO ARTEZKARIAK

Busturialdeko II. Inmigrazio Planaren (2008-2011) oinarrian dagoen esparru ideologikoa Inmigrazioari buruzko II. Euskal Planak (2006-2009) duen berbera da. Horrek esan nahi du oinarrizko kontzeptu eta printzipio artezkari berberak dituztela.

4.1. KONTZEPTUAK

4.1.1. Inmigrazio kontzeptua

- Busturialdeko Inmigrazio Planak uste du beste herrialde batzuetako pertsonen etorrera, behar bezala erabilita, fenomeno positiboa izan daitekeela euskal gizartearentzat, ekonomia eta kulturaren esparrutik aberastu egiten baitu. Horrek ez du ezkutatu nahi, baina, kultur anitza den gizarte hau doitzeko prozesuan aurre egin beharreko zailtasunak agertuko direla. Era berean, ez da ahaztu nahi migrazio mugimenduen oinarria hainbat eta hainbat herrialdeetako desberdintasun handiak eta gatazka larriak direla.
- Inmigrazioa ez dugu lanaren ikuspegitik bakarrik begiratu behar. Etorkina ez da langilea soilik, bere eskubide eta betebeharrak dituen herritarra bereziki baizik.
- Migrazio mugimenduak etengabeak izan dira historian zehar eta, hala, egitura-fenomenoa dira gizarte modernoetan, Oso prozesu dinamikoa da, administrazio publikoei azkar eta malgutasunez jokatzeko eskatzen diena.

4.1.2. Bertakotze kontzeptua

- Bertakotzea bi noranzkoko da: etorkinak eta bertako biztanleak elkarrekin egokitzeko prozesu dinamikoa dakar.
- Kultur artekotasuna funtsezkoa da bertakotzea gerta dadin. Kultura edo politikaren ikuspegitik, bertakotzea ez da ezinbestean nortasunen bateratzea edo abegi-gizartean bestelako kulturak asimilatzea. Bertakotzearen kontzeptu aurreratuak askotariko identitateak libre garatzea eskatzen du, berdintasunez eta denek eskubide eta betebeharrak berberak izanik. Era berean, identitate horien guztien arteko elkarreragineko eta erlazioko prozesua eskatzen du. Kulturartekotasunak identitate konplexuak eta konposatuak sortzea ahalbidetzen du, guztien ona eta guztien nortasuna aske geratzeko aukerarekin uztartzearen.
- Bertakotzeak etorkinek gizarte hartzailearen kulturetan osoki eta askatasunez murgiltzeko aukera izan dezaten dakar. Politika

publikoek partaidetza hori atxikimendu askearen eta ez asimilazio-prozesu baten ondorio izan dadin bermatu behar dute.

- Bertakotzea erantzukizun sozialaz onartu beharra dago, gizarte eta politikako eragileen interes partikularrak gainditzen dituen adostasun zabalaren bitartez.
- Bertakotzea bateraezina da irregulartasuneko kategoria juridikoa egotearekin.
- Bertakotzeak herritartasuna ezagutzea dakar. Gizarte integratuaren helburua ezin da erdietsi kultura arteko politikak eta prestazio sozial eta ekonomikoak batuta soilik. Erabateko bertakotzeak beste herrialde batzuetatik etorri diren pertsonak erkidego politikoa sartu ahal daitezen eskatzen du, horretarako herritar gisa ezagutuak izan daitezen beharrezkoa da.
- Bertakotzea guztikoa izan dadin, Inmigrazio Plana jada abiarazita dauden beste plan batzuekin koordinatu beharko da bateragarriak izan daitezen.

4.1.3. Herritartasun kontzeptua

- Busturialdeko Inmigrazio Planak, Euskal Planak bezalaxe, premisatzat du etorkinak ez ditugula benetan bertakotu ez badiegu herritartasuna eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan herritartasuna izateak berekin dakartzan eskubide eta betebeharrak berdintasunean edukitzea, aitortzen. Herritartasuna erdiesteko izatezko egoitza beharrezkoa da, hortaz, zentzu klasikoko nazionalitateetik eta baita nortasuneko beste edozein elementutik ere bereizten da.
- Herritartasun inklusiboak erregulartasun eta irregulartasunaren arteko bereizketa alde batera uzten du.
- Herritartasun inklusiboak sektore publikoak bertakotzeko prozesuan erantzukizun nagusia izatea berekin dakar. Herritartasunak bide ematen dituen oinarritzko eskubideak bermatzen dituzten prestazioen kudeaketak erakunde publikoen esku egon behar du.

4.2. **FUNTSEZKO PRINTZPIOAK**. Planaren oinarrian dauden funtsezko irizpide politikoak dira:

4.2.1. Berdintasuna

- Berdintasun printzipioak etorkinek, Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenen esparruaren barruan, ahalik eta oinarritzko giza eskubide gehien (zibilak, sozialak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak) izan ditzaten dakar. Halaber, betebeharrak berdintasuna izatea ere dakar.

- Printzipio honek lana ta Estatu sozial eta demokratiko baten berezko prestazioak eta zerbitzuak berdintasunean eskuratu ahal izatea ere dakar. Orokorrak izan daitezkeen premietan normalizazio eta espezializazio printzipioa aplikatuko da etorkinen kolektiboaren berezkoetan. Printzipio honek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna ere dakar, eta inmigrazio arloko politika guztiak sexuen arteko desberdintasunak ezabatzen zuzenduta egotera behartzen du.
- Berdintasun printzipioak desberdin izateko eskubidea murriztu beharrean sendotzen du. Desberdinari izan beharreko begiruneak garrantzi berezia du hizkuntza eta kulturaren esparruetan, eta eskuartze publikoa eskatzen du hala etorkinen jatorrizko kulturak babestu eta garatzeko nola euskal kulturaren txertatzeko.

4.2.2. Gizarteko partaidetza

- Partaidetzaren printzipioak politika publikoak egin eta kudeatzeko orduan horiek jaso behar dituzten taldeak kontuan hartzeko beharra dakar. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden etorkinen kolektiboak partaidetza honen subjektu nagusia dira, partaidetza hori gizarte ororentzat ere aitortuta egonik.
- Gizarte-mugimenduak espazio egokia dira abegi-gizarteak etorkinak bertakotu eta gizarteratzeko prozesuan parte har dezan.

4.2.4. Sexu arrazoiengatiko diskriminaziorik ezaren printzipioa.

- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei kasu egitea eta erantzunak ematea da Plan honen printzipio ideologikoetako bat. Emakume etorkinek diskriminazio bikoitza jasaten dute: bata emakumea izateagatik eta bestea etorkina izateagatik. Bestealde, funtsezko kolektiboa dira integrazio problematiketan: izan ere, beraiei dagozkie familia-kohesioa eta jatorrizko balioen transmisioa, baita etorkinek izan ditzaketen akulturizazio prozesuak ere.

4.3. **PRINTZIPIO OPERATIBOAK.** Planaren funtsezko printzipio edo ideologikoen mende dauden oinarritzko irizpideak dira:

4.3.1. Integralitatea eta zeharkakotasuna

4.3.2. Aurreneurriak

4.3.3. Normalizazioa

4.3.4. Koordinazioa

4.3.5. Ebaluazioa

4.3.1. Integralitatea eta zeharkakotasuna

Busturialdeko Tokiko Planak gaur egun Gizarte Zerbitzuen Elkargo hau osatzen duten 17 udalerriek -Arratzu, Busturia, Ea, Elantxobe, Errigoiti, Forua, Gauteziz-Arteaga, Gernika-Lumo, Kortezubi, Ibarrangelu, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz eta Sukarrieta- eta hemendik 2011. urte

bitartean atxiki daitezkeenek inmigrazio arloan burutzen dituzten jarduketak antolatu nahi ditu beste herrialde batzuetatik datozen auzoko berri hauen integrazioa sustatzearen. Asmoa etorkinen errealitatea biztanle guztiei zuzendutako udal ekintzak zeharka txertatzea eta, aldi berean, bere premia bereziei eskudun diren zerbitzuetatik kasu egitea da.

4.3.2. Aurreneurriak

Busturialdeko Tokiko Planaren helburua etorkinak gizartean baztertuta egon daitezen saihestea eta bere ongizatea sustatzea da. Horretarako oso garrantzitsuak dira abegi-biztanleak eskualdean bizi diren atzerritarren egoera, premia eta eskubideei buruz sentsibilizatzeko xedea dutenak. Eskualdeko auzoko berri hauen etorri diren gizartearen ezaugarriak ezagutaraztea ezinbestekoa da.

4.3.3. Normalizazioa

Berdintasun eta erantzukizun politikoko printzipioek biztanle etorkinak gizarteratzeko zerbitzuak eta prestazioak, ahalik eta maila handiengan, normalizatzera behartzen gaituzte. Normalizazioa osatzearen, espezializazioa beharrezkoa da etorkinen kolektiboaren premietan herritar guztienak ez diren eta bertakotzeko beharrezkotzat jotzen diren premia berezien kasuan.

4.3.4. Koordinazioa

Busturialdeko Tokiko Planak erakundeen eta bestelako gizarte-eragileen arteko koordinazioa bultzatuko du, etorkinen kolektiboari zuzendurako zereginak burutzerakoan bikoiztasunak eta hutsuneak saihesteko helburuz. Halaber, migrazio gaietan, inguruko udalerriekin eta inmigrazio mailan Busturialdeko antzeko profila duten beste udalerrri batzuekin koordinatzearen alde ere egingo du.

4.3.5. Ebaluazioa

Prozesu migratzailea dinamikoa da. Hori dela eta, Tokiko Plan hau malgutasun handia duela jaiotako, aurreikusitako aldaketetara egokitu ahal izateko. Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoak, urtero, Planaren burutzapena ebaluatuko du bere Txostenean. Txostenean garatutako ekintzak aztertuko du Elkargoak.

5.-HELBURUAK

Busturialdeko II. Inmigrazio Planaren ezaugarri nagusia, Euskal Planarena bezalaxe, bere zeharkakotasuna da. Busturialdeko Gizarte Zerbitzuaren Elkargoko 17 udalerriek etorkinak hartzeko oinarriak ezartzeko asmoa izateaz gain, jarduketak bestelako erakundeekin (Inmigrazio Zuzendaritza, Biltzen, Heldu, Ikuspegi, ikastetxeak, enplegu-zentroak, osasun-zentroak...) eta gizarte-eragileekin (elkartek, sindikatuak...) koordinatzeko xedea ere badu. Helburua ez da etorkinentzat bereziak diren zerbitzuak sortzea, Inmigrazio Zerbitzua salbo, dagoeneko daudenak hobetzea eta bestelako hizkuntzak, kulturak, erlijioak eta ohiturak dituzten pertsonak geroz eta gehiago izatera egokitzea baizik.

5.1.-Helburu orokorrak honakoak izango lirateke:

- 5.1.1.-Udal zerbitzu guztien eta bestelako erakunde eta elkarten koordinazioa hobetzea, biztanle etorkinak hartzeko ta gizarteratzeko prozesua laguntzarren.
- 5.1.2.-Kultura arteko gizartearen sorrera laguntzea.

5.2.-Helburu orokorrak zenbait **helburu berezitan** ere eratuta daude:

- 5.2.1.-Busturialdeko biztanle guztien eskubideak eta betebeharrak berdintzea, horien jatorria edozein dela ere, eta udal esparru guztietan aukera-berdintasunaren printzipioa bermatzea.
- 5.2.2.-Biztanle etorkinek herritar guztientzat komunak diren prestazioak eta zerbitzuak berdintasunez eskuratu ahal izan ditzaten ziurtatzea (hezkuntza, etxebizitza, osasuna, kultura, gizarte-zerbitzuak, hiritarren partaidetza, lan-sustapena).
- 5.2.3.-Etorkinen kolektiboek Busturialdeko errealitate sozial eta kulturala ezagutu eta errespetatu dezaten laguntzea.
- 5.2.4.-Bertako herritarrek etorkinen jatorrizko herrien errealitate soziokulturala ezagutu eta errespetatu dezaten laguntzea.
- 5.2.5.-Etorkinekin burutzen dituzten jarduerak guztietan generoko ikuspegia gaineratzea.
- 5.2.6.-Etorkinek udalerrien bizitzan parte har dezaten indartzea eta kultur arteko bizikidetzak garatzea.
- 5.2.7.-Biztanle etorkinen harreran esku hartzen duten profesionalen prestakuntza egokia sustatzea.
- 5.2.8.-Busturialdeko errealitate migratzailea ezagutzea.

6.-EKINTZAK

Busturialdeko Inmigratio Plana bost arlotan egituratuta dago eta horietako bakoitzean hainbat jarduketa proposatu dituzte.

- 6.1.-Abegia eta gizartegintza
- 6.2.-Lana
- 6.3.-Hezkuntza
- 6.4.-Osasuna
- 6.5.-Kulturarteko bizikidetza

Proposatutako neurriak garatzeko ardura Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoarena eta berau osatzen duten 17 Udalena da. Bestelako erakundeekin eta eskualdeko gizarte-eragileekin koordinazioa izatea ere ezinbestekoa da.

6.1.-ABEGIA ETA GIZARTEGINTZA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.1.1. Eskualdean bizi diren etorkinen erroldatzea erraztea, errolda ezinbesteko tresna baita herriaren errealitatea ezagutzeko eta pertsona guztiek gizarte, osasun eta hezkuntzaren aldetik dauden zerbitzuak berdintasunez eskuratzen dituztela bermatzeko.	-Udalerriak -Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)		2008 2009 2010 2011	-Erroldako datuak dituzten urteko txostenak.
6.1.2. Tresnak ezartzea Elkargoko Udalek Europar Batasunetik kanpoko etorkinei jakinarazteko erroldako izen-ematea bi urterik behin berritu behar dutela.	-Udalerriak -Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)		2008 2009 2010 2011	Iraungitzearen ziozko bajak dituzten urteko txostenak.
6.1.3. Harrera zuzena eta pertsonalizatua bermatzea eskualdera iritsi berri diren atzerritar guztiei. Harrera horretan, atzerritarren gai espezifikoiei eta eskualdeko baliabideei buruzko informazioa eta orientazioa emateko eta beharrezko zerbitzuetara bideratuko dira. Gizartetik baztertzeko arriskuan dauden pertsonentzako berariazko laguntzak izango dira ere.	-Mankomunitatea		2008 2009 2010 2011	-Harrera egindako iritsi berri diren atzerritaren kopurua.

6.1.-ABEGIA ETA GIZARTEGINTZA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.1.4. Elkargoko Inmigrazio Zerbitzuak oinarritzko informazioa ematea beste herrialde batzuetako herritarrei eta ez gainerako herritarrei eragiten dien araudiaren alderdiei buruz: lan eta egoitza baimena lortzea eta berritzea, familia batzea, erkidego-erregimena, naziotasuna, atzerriko gidabaimenak trukitzea, atzerriko ikasketak homologatzea, kontsulatuak, etab.	- Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)		2008 2009 2010 2011	-Emandako zerbitzuen kopurua.
6.1.5. Elkargoak bermatzea atzerritarrei buruzko legeriak gizartean errotzeko eta familia batzeko prozeduretarako eskatzen dituen udal txostenak egitea.	- Mankomunitatea		2008 2009 2010 2011	-Errotzeari eta familia batzeari buruz eginiko txostenen kopurua.
6.1.6. Heldu-rekiko etengabeko koordinazioa bermatzea (Eusko Jaurlaritzaren atzerritarrentzako doako laguntza juridikoko zerbitzua), egoera irregularrean dauden etorkinek lanerako baimenak eta egoitza baimenak lor ditzaten errazteko.	- Mankomunitatea -Heldu		2008 2009 2010 2011	-Busturialdean izapidetutako espediente kopurua.
6.1.7. Etorkinak hartzeko baliabideei buruzko gidak eta bestelako informazio-materialak eguneratzea eta hobetzea.	- Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)	-Gernika-Lumoko Euskera Zerbitzua	2008 2009 2010 2011	-Prestatutako materialak.

6.1.-ABEGIA ETA GIZARTEGINTZA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.1.8. Etorkinek berdintasunerako eta indarkeria sexistaren prebentziorako programetan parte hartzea erraztea eta atentzio egokia bermatzea tratu txarren biktimei.	-Mankomunitatea (Inmigrazio ta Emakumeentzako Zerbitzuak) Berdintasunerako Udal Zerbitzuak		2008 2009 2010 2011	-Programetan parte hartzen duten etorkin kopurua.
6.1.9. Bitartekaritzako ekimenak sustatzea zailtasun handienak dituztenek alokairuko etxebizitza eskuratzea errazteko, haien artean etorkinek.	-Mankomunitatea -Udalerriak -Etxebide		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.
6.1.10. Babestutako etxebizitzaren programen gaineko informazioa eta orientazioa ematea etorkinei.	-Mankomunitatea		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.
6.1.11. Atzerritarren araudiaren balizko aldaketen berri ematea Elkargoko Udalei, etorkinei eragin diezaieketen aldaketen berri.	-Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)		2008 2009 2010 2011	-Udalerriei emandako informazioak.
6.1.12. Udal langileen trebakuntza sustatzea inmigrazioaren eta kulturak elkarrekin bizitzearen arloetan.	-Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)		2008 2009 2010 2011	Formakuntzan parte hartu duten pertson kopurua.
6.1.13. Urteko txosten bat egitea eskualdean erroldaturiko atzerritarrei buruzko datuekin, eta txosten hori udalei eta gizarte eragileei ematea.	-Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)	-Udaletako erroldatze zerbitzuak	2008 2009 2010 2011	-Egindako txostenak.
6.1.14. Eskualde edota udalerrri mailan gizarte arlo desberdinetan abian dauden beste plan batzuekin koordinazioa lantzea eta burutzen dela bermatzea.	-Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua) -Udalerri bakoitzeko lan-saila		2008 2009 2010 2011	-Egindako kudeaketak.

6.2.-LANA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.2.1. Elkargoko Inmigrazio Zerbitzuak, beste erakunde eta gizarte erakundeekin batera, etorkin gehien dituzten sektoreetako (ostalaritza, etxeko zerbitzua, eraikuntza, merkataritza, nekazaritza eta basozaintza...) lanetako eskubideei buruzko informazio-saioak egitea.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)	-Lanbide Ekimenak -Sindikatuak -Elkarteak	2008 2009 2010 2011	-Egindako saioak eta partaideak.
6.2.2. Etengabeko koordinazioa bermatzea Elkargoaren eta eskualdeko enplegu zerbitzu publikoen artean, etorkinek trebakuntza ikastaroetan eta laneko programetan parte har dezaten bultzatzeko.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)	-Lanbide Ekimenak -INEM	2008 2009 2010 2011	-Ikastaroetan parte hartzen duten etorkin kopurua.
6.2.3. Etengabeko koordinazioa bermatzea Elkargoko Inmigrazio Zerbitzuaren eta Heldu zerbitzuaren artean, enpleguko udal programetan parte hartzen dutenentzat dauden erregularizazio posibilitate guztiak aztertzeke hala nola Auzolan programa edo Lanbide Ekimenetarako Zentroa (CIP).	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)	-Heldu -CIP Gernika -Lanbide Ekimenak	2008 2009 2010 2011	-Emandako prestazio kopurua.

6.3.-HEZKUNTZA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.3.1. Elkargoko Inmigrazio partaidetza Eusko Hezkuntza, eta Ikerketa sustaturiko pilotuan; tokiko baterako aurreikusten diren integratzeko garatzeko.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua) -Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila -Udalen Hezkuntza Zerbitzuak		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak dituen urteko txostena.
6.3.2. Etengabeko koordinazioa Elkargoko Zerbitzu eta Berritzegune 10 eta Eusko Jaurlaritzaren Sailaren artean, etorkinak ikastetxe eta ikasgela jakin batzuetan biltzeko egungo joera zuzentzeko. Kontuan hartu behar da, betiere, Plana onetsi den egunean Hezkuntza Sailak duela gai honen gaineko eskumen eskusiboa.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua) -Berritzegune -Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila		2008 2009 2010 2011	-Ikasle atzerritarren banaketari buruzko datuak dituen urteko txostena.
6.3.3. Baterako jarduerak egitea Gernika-Lumoko Helduen Eskolarekin eta bertan parte hartzen duten elkarteekin, etorkinen lehen harrerarako zein kulturak elkarrekin bizitzea sustatzeko.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua) -Gernika-Lumoko Helduen Eskola -Elkarteak		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.

6.3.-HEZKUNTZA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.3.4. Baterako jarduerak egitea udaleko euskara zerbitzuekin, etorkinek euskara jakitea eta erabiltzea errazteko.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua eta Hautzaroko Saila) -Udalen euskara zerbitzuak -Elkartek		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.
6.3.5. Baterako jarduerak egitea eskualdeko ikastetxeekin eta gurasoen elkarrekin migrazio mugimenduen kausak ezagutarazteko eta kultura desberdineko pertsonak elkarrekin bizitzea eta elkar ezagutzea erraztu ahal izateko.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua) -Berritzegune -Ikastetxeak -Gurasoen elkartek		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.
6.3.6. Elkargoak, beste erakunde batzuekin batera, haurrak eta gazteak elkartzeko guneak sortzea, beste herrialde batzuetatik etorritako adingabeak eta gazteak eskualdean hobeto integratzeko eta kulturak elkarrekin bizitzea landu ahal izateko.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua) -Udalerriak		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.
6.3.7. Eskualdeko ikastetxeetan matrikulariko ikasle atzerritarrei buruzko urteko txosten bat egitea. Txosten hori Elkargoko Udalei eta hezkuntzako eragileei emango zaie. Eskatzen duten erakunde guztien eskura ere egongo da.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua) -Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza saila		2008 2009 2010 2011	-Urteko txostena.

6.4.-OSASUNA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.4.1. Hezkuntzako baterako jarduerak Gernika-Lumoko anbulatorioarekin egitea osasunari begira, gabezia gehien dituzten herritarrentzat, horien artean etorkinentzat.	Mankomunitatea -Gernika-Lumoko anbulategia		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.
6.4.2. Elkargoko Inmigrazio Zerbitzuaren eta anbulatorioaren arteko koordinazioa bermatzea, haien eskumenen barruan Banako Osasun Txartelaren kudeaketa eta etorkinen atentzioa errazteko alderdi guztiei dagokienez.	Mankomunitatea -Gernika-Lumoko anbulategia		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.

6.5.-KULTURARTEKO BIZIKIDETZA

Neurriak	Erakunde arduraduna	Laguntzaileak	Burutzapen epea	Adierazleak
6.5.1. Inmigrazio Zerbitzuaren eta kulturak elkarrekin bizitzearen aldeko ekimenak lantzen dituzten eskualdeko elkarten arteko baterako lana sustatzea.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua) -Elkarteak		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.
6.5.2. Atzerritarrak eskualdeko gizarte eta kultur bizitzan parte hartzea sustatzea Immigrazio Zerbitzuaren aldetik, bai egon dagoen elkarte-sarearen bidez, bai sortu berri diren elkarten bidez.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)	-Biltzen -Elkarteak	2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.
6.5.3. Udalerrietako kultur programazioetan egon dagoen aniztasuna islatzea eta etorkinen proposamenei lekua uztea sustatzea.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua) -Kultur Etxeak	-Biltzen -Elkarteak	2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.
6.5.4. Plan honen eremuan eginiko jardueren urteko txostena egitea. Txosten hori Elkargoko Udalei emango zaie, eta hura eskatzen duten erakunde guztien esku egongo da.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.
6.5.5. Tokiko hedabideei laguntzea Busturialdeko migrazioaren errealitatea ezagutarazteko eta kulturen arteko elkarbizitza sustatzeko.	Mankomunitatea (Inmigrazio Zerbitzua)		2008 2009 2010 2011	-Buruturiko egitarauak.

7.-METODOLOGIA

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoak atzerriko biztanle kopurua hazia zela ikustean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak etorkinei abegi egiteko, tokiko sarea sortzeko ekainaren 25eko 155/2002 Dekretuaren bidez, abiarazi zituen Tokiko Erakundeetarako Laguntzak eskatu zituen. 2003. urteko abenduaren 18ko ebazpenaren bidez, Inmigrazio Zuzendaritzak Elkargo honi eskatutako laguntza eman zion, eta horren bidez teknikaria kontratatu eta Sartu elkarteari diagnostikoa egin zezan agindu ahal izan zioten eskualdeko errealitate migratzailea ezagutzearren. Handik aurrera, Busturialdeko I. Inmigrazio Plana (2005-2007) egin zen, Elkargoaren Batzar Orokorak aho batez onetsia 2005eko martxoaren 10ean.

Gizarte Zerbitzuen Elkargoak, 2008ko urtarrilean, I. Inmigrazio Plana ebaluatu zuen eta II. Plana diseinatzen hasi zen. Horretarako, elkarrizketa pertsonala egin zuen inmigrazioko teknikariak Elkargoko 17 udaletako alkateekin eta Elkargorako ordezkariekin, eta eskualdeko 30 gizarte eragileri elkarrizketak egiteko agindua eman zitzaion Ede Fundazioari, baita eskualdean bizi diren 16 etorkinei ere. Elkarrizketetan jasotako proposamen guztiak hartuta inmigrazio teknikariak II. Planaren lehen zirriborroa egin zuen. Zirriborro hori Elkargoaren barruan dauden 17 Udalei eta gizarte-eragileei igorri zieten. Elkargoaren Batzar Orokorak onetsi zuen azken testua, prozesu osoa amaitu ondoren egina, 2008ko urriaren 16an.

8.- BALIABIDEAK

8.1 BALIABIDE EKONOMIKOAK. Busturialdeko II. Immigrazio Planak, bere garapenerako, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren apirilaren 17ko 61/2007 Dekretuan, inmigrazioaren eta kulturarteko bizikidetzaren alorrean jarduerak burutzeko laguntzak edukiko ditu. Era berean, Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoak, 2008., 2009., 2010. eta 2011. urteetako aurrekontuen barruan, Plan honetan jasota dauden neurriak garatzeko partida sartuko du. Elkargoak, urtero, bere ekipo teknikoak proposatuta, lehentasunezko ekintzak ezarriko ditu eta hauei baliabide ekonomikoak emango dizkie.

8.2. BESTELAKO BALIABIDEAK

8.2.1. Udalak

- Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Elkargoa.
- Udaletako Gizarte Ongizate Arloak.
- Gernika-Lumoko Berdintasunerako Udal Zerbitzua
- Gernika-Lumoko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Udal Zerbitzua.
- Udalen Hezkuntza, Euskera, Kultura eta Gazteria Arloak.
- Udalen Etxebizitza Arloak.
- Gernika-Lumoko Kiroletako Udal Patronatua.
- Udalen Kultur Etxeak.
- Gernika-Lumoko Lanbide Ekimenak

8.2.2. Bizkaiko Foru Aldundia

- Gizarte Ekintza Saila.
- Foru Ogasuna.

8.2.3. Eusko Jaurlaritzaren

- Inmigrazio Zuzendaritza:
 - Heldu
 - Biltzen
 - Inmigrazioari buruzko Euskal Behatokia.
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketaren Ordezkaritza.
 - Berritzegune 10.
 - Gernika eta Mundakako Helduen Eskolak.
 - Ikastetxeak.
- Etxebizitzaren Lurralde Ordezkaritza. VISESA.
- Osakidetzaren.
- HABE.
- Emakunde.
- Ararteko.
- Prestakuntza eta Enplegua Sustatzeko Akzioaren Baltzu Publikoa - Egailan.

8.2.4. Estatuko administrazioa

- Lan eta Gizarte Gaietako Probintziako Bulegoa. Gobernuaren Ordezkaritza.
- Polizia Nazionalaren Atzerritarren Bulegoa.
- Kotsulatuen Gaietako Zuzendaritza Nagusia.
- Espainiako Herriaren Defentsaria.
- Enpleguko Institutu Nazionala (EIN).
- Durangoko Gizarte Segurantzako Diruzaintza Bulegoa.

8.2.5. Sindikatuak

- Langileen Batasun Orokorra (UGT).
- Langile Batzordeak (CCOO).
- Euskal Langile Alkartasuna (ELA).
- Langile Abertzaleen Batzordea (LAB).
- ENHE.

8.2.6. Elkarateak (Atal honetan inmigrazioaren alorrean zuzenean lan egiten dutenak baino ez daude jasota, halere, eskualdean beste eratako jarduerak garatzen dituzten beste askorekin elkarlanean aritzea ere aurreikusten da).

- Ideasur.
- Gernikatik Mundura.
- Gernika Gogoratu.
- Cáritas.